

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2013ko maiatzaren 28a. IX. urtea. 2.601. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Manifestaziora deitu dute atez atekoaren aurka

Tolosaldea Txukun plataformak antolatuta Amasa-Villabonan izango da, ostiralean **03**

Tolosa Zero Zaborrek Tolosaldea Txukuni gonbita egin dio

Zero zabor plataformak, «giro nahasia utzi eta elkartzen gaituzten puntuez» hitz egin nahi du **03**

Buruz burukoari agur esan behar izan dio Abel Barriolak **06**

TAKE-Orbela saskibaloitaldeak mailaz igotzea lortu du **07**



→ **Plaza gainezka, Leiztan.** Leiztan Kultur Aroaren barruan bete-betean sartuta daude, eta igandean ospatu zuten Eskulangintza azokarekin «oso gustura» geratu dira antolatzaileak. Beste hainbat herritan ere jaia izan da nagusi. **04-5**



TOLOSALDEA

LANBIDE HEZIKETA
INSTITUTUA

Eleanitza



ziklo guztiak
euskaraz

AURREMATRIKULAK Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak

Stop Kaleratzeak taldeak Kutxen IRPHA desagertzea eskatuko du

Tolosako udaletxean gaur egingo duten ohiko batzarrean aurkeztuko du mozioa, Tolosako taldeak

Stop Kaleratzeak taldetik diotenez, indize hori desagertuz gero, milaka familien ekonomian arintze garrantzitsua emango litzateke, hileko 300 eurotik 400 eurora bitarteko aurrezteka ekarriko bailuke, batez beste.

Bada, Tolosako Udalak euren eskariarekin bat egin dezan eskatzen dute, eta Espainiako Ekonomia Ministeriora haren jarrera salatzen duen gutuna bidaltzea.

Bestalde, Tolosako Stop Kaleratzeak taldetik herritar guztiei egin diete deia gaur, 19:30ean izango den plenora ager daitezen, milaka euskaldunei eragiten dien afera baita, eta asko ez dira jakitun, gainera.

I. Terradillos Tolosa

Tolosako Stop Kaleratzeak taldeak mozio bat aurkeztuko du gaur Tolosako udaletxean egingo duten ohiko batzarrean. Bertan hipoteka mailaguen interesak zehazten dituen indizeetako bat, hau da, Kutxen IRPHA behin betiko desagertu dadila eskatzen dute.

Hasi du bidea Musikaria Astea egitasmoak

I. Garci Landa Tolosa

Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolak antolatzen duen Musikaria Astea egitasmoa abian da jada. Aste guztian zehar emanaldiak izango dira. Hain justu, atzo izan zen lehenengo saioa, Igor Arostegi perkusio jolearekin. Gaurkoa, piano jotzaileen txanda izango da. Xabat Urkola eta Julen Cestero ariko dira, 19:00etan, musika eskolan bertan.

Bihar, asteazkena, Hernasax saxofoi taldearen emanaldia entzuteko aukera izango da. Saioa 19:30ean hasiko da. Ordu berdinean, eta ostiralean, hilak 31, musika eskolako akordeoi taldeak emango du kontzertua. Bi hauek ere musika eskolan izango dira.

Musikaria Asteari amaiera Tolosako Musika Bandak emango dio, larumbatean, ekainaren 1ean. Zerkausion izango da kontzertua eta 19:00etan hasiko da.

Lehiberri zentroaren aurkezpena, Villabonan

M. Iraola Amasa-Villabona

Lehiberri zentroa ezagutaraztera emateko aurkezpen ekitaldia egingo du Joxe Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzen garapen agenziako kudeatzaileak, gaur,

asteartea, 19:00etatik aurrera, Villabonako Mintzolan. Aurkezpenaren ondoren, Joseba Barandiaran ekonomialariak *Krisialdiko E(u)romena: zer aldatu da, ekonomia ala geu?* izeneko hitzaldia emango du.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

53 karteletatik hamar izan dira aukeratuak, San Joan jaiak atontze bidean

Tolosako kultur etxean daude ikusgai eta herritarrek bozkatu ahal izango dute kartelik onena ostirala bitartean

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako Udalak eta sanjoanetako kartel lehiaketako epaimahaia, aukeratu ditu jada, 10 kartel finalistak; guztira 53 kartel aurkeztu dituzte herritarrek, eta Igor Ezenarro kultur zinegotziak «oso balorazio ona» egin du honi dagokionez: «Ez dugu ezer asmatu, duela urte asko egiten zen lehiaketa berreskuratu baitugu, batez ere, sanjoanek herritarren gerturatzeko, eta parte-hartzea sustatzeko».

Aurkezturiko lanen artean aniztasuna izan da nagusi, izan ere, teknikarik berritzaile eta digitalenetatik hasita, eskuz, oleokin eta bestelako teknikekin buruturiko lanak ere izan dira tartean. Epaimahaikideak musutruk aritu dira, eta udalak eskerrak



Eider Epelde eta Igor Ezenarrok erakutsi dituzte hamar finalistak. I. URKIZU

eman nahi izan dizkie, beraz, Eider Epelde, Nisa Goiburua, Txetxo Gaztañaga, Nerea Ugarte, Tomas Hernandez eta Anjel Alonsori.

Eider Epelde epaimahaiburuak nabarmendu duenez, galbhea egiterakoan, aniztasuna kontuan izan dute, «herritarrek ere askotariko estiloetako kartelak bozkatu ahal izateko». Honenbestez, atzotik hasi eta ostiralera bitarte kultur etxeko areto nagusian ikusgai izango den kartel erakusketan ikusgai izango dira 10 finalistak, eta bertan bozka

eman ahal izango dute herritarrek. Era berean, <http://www.tlsbat.net> webgunean ere ikusi eta bozkatu ahal izango dira finalera iritsi diren kartelak. Bozketan parte hartzen dutenen artean, Tolosako Udalak bi sarrera zozketatuko ditu, ekainaren 21ean Leidorren izango den *Sortuko dira besteak* ikuskizunerako.

Azkenik, aipatzekoa da kartel irabazlearen izena ekainaren 3 inguruan ezagutaraziko dutela, eta 500 euroko ordainsaria jasoko duela egileak.

Metalgintzako greban langileen erantzuna «izugarria» izan da

Mobilizazioen aurrean, Adegri patronalak bere jarrera «birplanteatu» beharko duela azaldu dute LAB sindikatutik

I. Garcia Landa

Metalgintzako sektoreko langileek greba egin dute Gipuzkoako hitzarmena defendatuz Adegri patronalaren aurrean. Mari Mujika metalgintzako LABeko Tolosaldeko arduradunak azaldu duenez, langileen erantzuna «izugarria» izan da: «Gipuzkoan grebarekin bat egin dutenak %85 izan dira, eta Goierri, Tolosaldean



LAB sindikatuak deituta mobilizazioa egin zuten Tolosan. I.G.L.

eta Urola Kostan izan da ehuneko nagusiena». Mujikak gaineratu duenez, hitzarmena berritzeko negoziazioa «blokeatuta» dago eta Adegiren jarrera «oso itxia»

da. Ostiralean emandako erantzunaren aurrean, Adegik «bere jarrera birplanteatu» egin beharko duela eta langileei entzun beharko diela azaldu du.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 5219922

SALGAI

Quad. Suzuki LTZ 400 markako quad-a. 3.500 kilometro ditu, guztiz ekipatua dago eta berria bezala dago. Interesatuak, deitu 600 75 25 37 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

Hortz protesia. Galdutako hortz protesia bat jaso dute Amasa-Villabonako udaltzaingoan, eta galdu duen Amasa-Villabonako udaltzaingotik pasa beharko du jasotzera.

Atez atekoaren aurka manifestazioa egingo dute Villabonan ostiralean

Atez ateko sistema «inposizioa» dela salatu, eta «adostasun baten beharra» dagoela esan du Patxi Amantegik

Mikel Iraola Anoeta

Datorren ostiralean, hilaren 31n, Tolosaldea Txukun plataformak deituta, eskualdeko herrietan atez ateko hondakin bilketa sistema jartzearen aurkako manifestazioa burutuko dute Amasa-Villabonan.

Erabaki honen aurka dauden «herritarrekiko konpromisoarekin jarraitu eta kanpainarekin aurrera» egingo dutela adierazi du Patxi Amantegi, plataformako bozeramaileak. Atez atekoa, herritarren borondatearen aurka doan «inposizioa» dela salatu du.

Eskualdeko hainbat herritan plataformak bildu dituen sinadura kopuruari ere garrantzia eman nahi izan die: «Anoetan 455 firma bildu ditugu atez atekoaren aurka, 258 Iruran, Alegian 469, 1.934 Amasa-Villabonan, 1.470 Ibarren, eta 6.600 Tolosan. Ez al dira nahikoa? Zer gehiago behar dute?».

Era berean, Zizurkil, Irura, Anoeta, Alegia eta Amasa-Villabonan sistema hau ezartzea «ulergaitza» dela esan du Amantegik: «Tolosan sistema hobereana zein den eraba-



Hainbat herritarren babesa jaso zuen Amantegik Anoetako plazan emandako prentsa agerraldian. M. IRAOLA

kitzeko informe baten ondorioak jasotzeko zain daude, eta ez da logikoa beste herrietan erabakia hartua izatea. Ez ditugu ulertzen bost herri hauetako alkateek atez atekoaren alde hartutako erabaki irmoaren arrazoiak. Garestia dela aitortu dute. Ez ditu zabor bilketa tasak handitzen. Deserosoa egiten zaigu. Intimitate eskubidea urratzen du. Eta ez du hondakinekin daukagun arazoa konpontzen».

Eskualdeko bost herri horietan atez ateko sistema ezartzea, «Tolosako herritarrek sistema hori ez pairatzeko kalte-ordaina» dela salatu zuen Tolosaldea Txukuneko bozeramaileak: «Ez dugu lehen eta bigarren mailako herritarren arteko mailaketarik onartuko».

Adostasun bila

Hondakinen bilketaren inguruan erabakiak hartzeko, «adostasun batera heltzea beharrezkoa» dela dio Amantegik. «Ormaiztegi, Azpeitia eta Zumaian ados jarri dira guztiak bostgarren edukiontzia jartzeko. Bergara, Legazpi eta Zarautz ere bidean dira».

Hori dela eta, inguruko alkateei gauza bera egiteko deia luzatu zion Tolosaldea Txukunen izenean. «Herritarrek tentsioan jartze-ari utzi behar diogu, eta denak pozik utziko dituen soluzio bat bilatu».

Atez ateko sistemaren «inposizioa» salatu, eta herri galdeketa egitea eta adostasuna bilatzea eskatzeko manifestazioa burutuko

da ostiralean Amasa-Villabonan. «Halaber, Villabona, Zizurkil, Irura, Anoeta eta Alegiako alkateei esan nahi diegu herritarrek in dutela konpromisoa, eta ez Aldundiarekin. Herritarrek baitira kudeaketaren epaile, eta alkateek erantzunkizuna herritarren aurrean agertu behar dute».

Manifestazioa, arratsaldeko zazpitan abiatuko da Amasa-Villabonako parrokiatik *Biziriklapena Bai. Atez Ate STOP lelopean*. Ondoren, Iru Aldeta, Txermin auzoa, Ula auzoa, Zubimusu zubia, Pásus biribilgunea, Aurrera Plaza, Ubare pasealekua eta kale nagusia zeharkatuko ditu Villabonako plazan amaitu aurretik. tolosaldean@hitza.info

→ Laburrak

Berazubiko pasealekua itxi egingo dute, bihar

TOLOSA ▶ Bihar, asteazkena, Berazubi Estadioa, Oria ibaia- ren ondok inguratzen duen pasealekua itxita egingo da 09:00etatik 16:00ak bitartek, orain arteko atletismo pistako horma botatzeko lanak direla eta.

Iturritza elkarteko mus txapelketan izen ematea

TOLOSA ▶ Iturritza erretirodunen elkarteak, urtero bezala, San Joan jaiak direla-eta Mus Txapelketa antolatu du, lau eta zortzi erregetara. Parte hartu nahi duenak izena eman dezake hilaren 19a bitartean, elkartean, 10:00etatik 12:00etara. Tolosaldeko edozeinek parte hartu ahal du txapelketan.

Oporretan euskaraz- en izena emateko epea zabalik

ZIZURKIL ▶ Ekainaren 24tik uztailaren 19ra, 09:30etik 13:30era egiten den Oporretan Euskaraz ludotekan izen emateko epea zabalik dute dagoeneko 2001 eta 2009 urte bitartean jaiotako haurrek. Jolas eta irteeren bitartez, haurren artean euskararen erabilera sustatzeko helburua du ludotekak. Epea ekainaren 14an amaituko da. Kuota, 65 eurokoa da, eta bigarren senidetik aurrerakoa, 36 eurokoa. Informazio gehiagorako, 943 69 24 95 telefonora deitu daiteke.

Udalbatza osoaren ohiko bilkura egingo dute, gaur

IBARRA ▶ Udalbatza osoaren ohiko bilkura egingo dute gaur 19:00etan Ibarako udaletxean. Hamar puntuko gai zerrenda izango dute, tartean, aurreko bilkuren aktaren onarpena, udal inbentarioaren onarpena, 2013ko ordenantza fiskalaren aldaketa, 2013ko Ibarako Udal-eko lanpostu zerrenda organikoaren aldaketa, Gobernu espainiarrak EAEn duen ordezkariari buruzko ebazpena, edota LAB sindikatuak hirugarren adineko egoitzako langileen hitzarmenari buruz aurkeztutako mozioa.

Festa batzordearen lehen bilera, bihar

IBARRA ▶ Ibarako jaiak antolatzeko asmoarekin festa batzordeak lehen batzarra egingo du, bihar, 19:30ean udaletxeko batzar aretoan. Udalak, herriko talde, elkarte, eragile zein herritar orori bertan parte hartzeko deialdia luzatzen die.

Tolosa Zero Zaborrek elkarrizketa publiko bat egiteko gonbita luzatu dio Patxi Amantegiri

Tolosaldea Txukun plataformarekin «batzen dieten puntuez» hitz egin eta «elkarlanean aritzeko beharra» azaldu du

M. Iraola

Tolosa Zero Zabor plataformak, Patxi Amantegi, Tolosaldea Txukuneko bozeramaileari elkarrizketa publiko bat egiteko deia zabaldu dio, «bi plataformei elkartzen gaituzten puntuez hitz egin eta hondakinen murrizpen, berrerabilpen eta birziklatze politiketan herritarrekiko komunikatu eta elkar hezteko».

Zero Zabor taldea kezkatuta ageri da hondakinen gaiaren inguruan herrian sortzen ari den «giro nahasiarekin», eta beren ustez, bi plataformak batzen dituzten puntuko gehiago izanda, «konfrontazioa bilatu beharrean, puntu horiek nabarmentzea garrantzitsua da».

Bi plataformak ahalik eta gehien birziklatu behar dela esaten dute, eta horretarako, San Frantzisko, Flandria, Caparori, Espainia edo Alemaniako eredu batzuk jarraitzeko apustua egin du Zero Zabor taldeak. «Ziur gaude tolosarrok biziklatze-tasa handienetara iristeko ahalmena dugula».

Ados dauden beste puntu bat, edozein bilketa sistema ezarrita ere, honek derrigorrezkoa izan behar lukeela dioena da. «Amantegik bostgarren edukiontzia derrigorrezkoa izan beharko lukeela esan zuenean poztu egin ginen. Ez horregatik bakarrik, ontziak identifikatua edo fiskalizatua behar duela izan aldarrikatzen duenean ere bai, denok arduraz jokatzeko beharra daukagulako. Diskurtso aldaketa hori garrantzitsua izan da». Dena den, sistema horren eragin-kortasuna frogatzeko aukerak izan direla dio Zero Zaborrek, eta ez dela horrela izan.

Bi parteak auzokonpostaren al-



Tolosa Zero Zabor taldeak konpostaren inguruan eginiko hitzaldia. HITZA

dekoak direla ere badio plataformak, eta gai horretan, babesa eman nahi izan diote Amantegiri. Era berean, kamaina hori bultzatzen jarraituko dutela adierazi du.

Heziketaren garrantziaz ere mintzatu da Tolosa Zero Zabor: «Heziketa oinarritzko balore eta tresna da gizakiaren eboluzioan, aurrera egiteko». Horegatik, plataformak bere burua eskaini du hitzaldiak eman edota informazio mahaiak osatzeko. «Aurreko batean egin genuen bezala, elkarlanean aritu nahi dugu oraingoan ere».

«Proposamen ausarta»

Horrez gain, atez ateko hondakin bilketa sistema aplikatzearen aldeko erabakia hartu duten erakunde publikoek aipamena egin nahi izan die Tolosa Zero Zaborrek: «Neurri hau herritarren gogokoa ez zela izango jakinda, proposamen ausarta egin dute. Herritarro gure hondakinekin arduraz jokatzeko eta ingurugiro osasuntsu eta iraunkor batean bizitzeko dugun eskubidea babesteko eta zaintzeko egin duten apustua da».

• tolosa@hitza.info

Amagoia Elezkano laudiotarraren erailketa salatu dute Tolosako Trianguloan, 'Indarkeria sexistari aurre hartu' lelopean.

Leitzako artisau azoka, «oso arrakastatsua»

Asier Imaz

Kulturaren barruan XXXV. Leitzako Eskulargintza azoka ospatu zuten igandean, «erositako eguraldiarekin». Antolatzaileak oso gustura agertu dira bildutako jendetzaarekin: «guentim plaza guineza eragin; jaumartekak eta abar zuzen eta horrek ere jendea plazara erakarritzen. Arratsaldean leizaldegoko egoteko aukera egon zen, eta artisaak ere oso gustura aritu ziren eskulanetan, eguzkia gozatuz, josteko presarik gabe. Oso gustura galditu gara». Azokan bildutako jendetzak aldarrikapen ekimen bati behesa uzaldu zion, sinadura bitartez eta animoekin: Maxurrenea Herrintzat Plataforma kidetxek eskerrak eman nahi izan dizkie euren postura gerturatuako guztiei, eta baita Leitzako Kultur Taldeko kideei ere, azokan lekua egotegatik. Sinadura kampaia oraindik ez dela amaitu gogoratu dute plata-

formatik, eta herriko tabernetan, udal bulegoetan edo hainbat denda enpleinatzaileekin bat egiteko aukera dagoela aipatu dute. Leitzan bezala, Tolosaldean ere jai giroak eta aldarrikapenak bat egin dute asteburuan. Aste hoteak, Bedaio, Lizartza, Tolosa eta Villabona aipatu behar dira. Herri kasuetan, nisisaldia izan zen ekitaldien ardatza. Bedaion Asteburu Kulturak ospatu zuten, eta tartean, Xabier Amuriza egon zen Leizako Txikiaren ibilkeria kontatzen eta kantatzen. Kanturako, Villabonako Gureas antzokia, bertan ospatu baitzen Euzko Herriko hasar eta gasteen kantu txapelketa. Asteazkenean jakingo da finalerako zein talde sailkatuko diren. Tolosalde.hitza.info webgunean emanaldiko hiru bideo ikus ditezke. Tolosari dagokionez, beste beste Txapin festa ospatu zen, Ahora! Astearen ekarlanean. Une ikusgarrienak Orta Idoian bizitu ziren, baitaen jaietara erekin. Urtero, bezala, arraroa bihurtu da bukatu ez zae-

na. Lizartzan, azkenik, *Ez gara Palestinaz ari* bertso musikatua eta komikoarekin gozatu zuten igandean, Kultur Astearen barruan. Aste honetarako hainbat ekimen antolatuta dituzte, eta horietan lehena, gauroko, landare buruzko hitzaldia da. 19.00etan Jagobia Errekoñdo Lizartzan egongo da hitzartu bezala. Bestalde, jai kutsutik haratago, aldarrikapenak hartu zuten Tolosaldeko lanuruetan. Tolosaldeko Emakume Mundu Markako Plataforma deituta, Trianguloan, *Indarkeria sexistari aurre hartu* lelopean Amagoia Elezkano laudiotarraren erailketa salatu zuten hainbat herritarrek. Huyck Wangner-eko langileek asteroko elkarretarata egin zuten. Hauen ondoan, Tolosa kideak aritu ziren osasun publikoaren aldeko lan nekazarietan. Asuncion Klinikaren egoera langileek ere salatu zuten, herriko erakundearen aurka, murrizketen aurka protesta eginez, bata txuri eta guzti.



Tolosa | Ahora! Astearen barruan sardina jatea eta musika jaleldi ikusgarria ospatu zuten, Txapin Festak ere bat egin zuten KMK3ekin. [HITZA](#)



Lizartza | Aste Kulturaren barruan Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsoariak aritu ziren, 'Ez gara Palestinaz ari' ikusizunarekin. [HITZA](#)



Tolosa | Udaberri dantza taldeak eta Lask abesbatzak 'Ortzadarraren bila' ikusizuna eskaini zuten igandean. [LUMAZ](#)



Leizta | Kultur taldeko kideak «oso gustura», XXXV. Eskulargintza Azokarekin, jende ugari bildu zen. [HITZA](#)



Zizurkil | Siniertze Egurenen nondin norakoak, bideoan, 'tolosaldeko hitza.info' webgunean. [LUMAZ](#)



Tolosa | Eskulturastea lehiaketaren lehen saria jaso duen Manu Urangaren 'Estolda arteko lerroak' eskultura inauguratu dute, Emakumeon plazan. [HITZA](#)



Tolosa | Asuncion Klinikako langileak murrizketen aurka protesta egin zuten Triangulo plazan. Herriarekiko pultsua hartu zieten. [LUMAZ](#)



Tolosa | Amagoia Elezkanoen erailketa salatu zuten Tolosan. [LUMAZ](#)



Bedaio | Xabier Amuriza Laskao Txikiaren paperean, Asteburu Kulturalean. [LUMAZ](#)



Tolosa | Huyck Wangner-eko langileen lanurateroko elkarretarata. [LUMAZ](#)



Villabona | Etorikuneko ahotsez gozatzeko aukera egon zen Gurea antzokian. [LUMAZ](#)

Kirolak**↓ Kirol emaitzak****FUTBOLA**

ERREGIONAL OHOREZKOA
Azken jardunaldia
Tolosa-Urola 3-1

Sailkapena

1. Oiartzun	78p
2. Hernani	76p
3. Real Union	72p
4. Aretxabaleta	67p
5. Berio	53p
6. Hondarribia	52p
7. Tolosa	49p
8. Bergara	49p
9. Aloña Mendi	43p
10. Zarautz	38p
11. Lagun Onak	37p
12. Ostadar	36p
13. Beti Gazte	36p
14. Touring	36p
15. Aurrera	35p
16. Mondragon	34p
17. Urola	32p
18. Trintxerpe	25p

PILOTA

LEHEN MAILAKO PILOTA
TXAPELKETA, BANAKAKOA
Final-laurdenak
Olaizola II 22
Barriola 16

Finalerdiak

Juan Martinez de Irujo
Oinatz Bengoetxea

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO
TXAPELKETA, ESKU PILOTA
Final-laurdenak, joaneko partidak

Amezketak	1
Hernani	2
Tolosa	2
Berrobi	1
Zizurkil	2
Bergara	1
Alegia	1
Bidegoian	2

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO
TXAPELKETA, ZESTA PUNTA

Hirugarren jardunaldia
Karmelo Balda
DONOSTIA
Donostia 1
Tolosa 2

Hurrengo jardunaldia

Ekaina 2, igandea

ZUMAIA

Zumaia
Tolosa

MIGEL SOROAREN

OROIMENEZKO I. OGI BERRI
TXAPELKETA

Beotibar, TOLOSA

Kadeteak
Errandonea-Mendia 22
Egiguren-Erauskin 10

Eliteak

Artola-Peñas 22
Victor-Rezusta 20

Etorkizunekoak

Iribarria-Erauskin 22
Larrañaga-Aburuza 15

SASKIBALOA

Euskal Herri mailara igoera
fasea, *Final Four*
USABAL KIROLDEGIA
(Tolosa)

Maiatzak 25, larunbata

Santo Tomas 40
Errotaundi 47

TAKE Orbela 72
Alde Zaharra 50

Maiatzak 26, igandea

FINALA
Errotaundi 61
TAKE Orbela 63

HERRI KIROLAK**URREZKO AIZKOLARIAK**

Finalerdiak
OTXANDIO
Joseba Otaegi 18'47"
Ugaitz Mugertza 19'05"

SEGA

Euskal Herriko liga,
nazioarteko eran
BERAMENDI
Lehen jardunaldia

Gizonezkoak

1. Gabirondo 4:09
2. Goenaga 4:38
3. Mitxelena 4:59
4. Esnaola 5:01
5. Altzo 5:22

Emakumezkoak

1. Imaz 2:19
2. Astondoa 2:33
3. **Etxaburua** 2:48
4. Otamendi 3:04
5. Ezeiza 3:34

Gazteak

1. Mitxelena 3:15
2. Intxausti 3:46

Gipuzkoako sega txapelketa

Ekainak 2, ZIZURKIL

1. saioa
Igor Esnaola
Jexux Goenaga
Juan Joxe Lizaso
Jesusmari Ormaetxea *Urki*

2. saioa
Mikel Garaialde
Mikel Alkorta
Julen Gabirondo
Iban Pardo

ARRAUNA

Euskadiko Trainerilla

Txapelketa
Finala
HONDARRIBIA

Gizonezko gazteak

Kontsolazio txanda
1. Tolosaldea 17:07
2. Deustua 17:19
3. Arkote 17:50
4. Zumaia (erretiratuta)

Ohorezko txanda

1. Pasai Donibane 17:28
2. Portugalete 17:32
3. Ondarroa 18:15
4. San Pedro (kanpoan)

Buruz Buruko Pilota Txapelketatik kanpo geratu da Abel Barriola leitzarra

Oinatz Bengoetxeak Martinez de Irujoren koska gaititu beharko du finalera heltzeko

Itzea Urkizu

Abel Barriolak ezin izan du Olaizola II.a gaititu, eta eskuzko Buruz Buruko Txapelketan 22-16ko emaitzarekin amaitu du bere ibilbidea.

Pasa den larunbatean jokatu zuten norgehiagoka, Iruñeko Labrit pilotalekuan, eta Barriola txukun aritu zen arren, sakez min handia egin zion goizueta-rrak.

Norgehiagokaren hasieran, Olaizola II.a ohiko bizitasunik gabe aritu zen, eta Barriola berri, kolpe freskoarekin hasi zen, eskuin eskuan izandako arazoak atzean utzita.

Gauzak horrela, arriskuak hartzea erabaki zuen Aimar Olaizolak, sakearekin. Barriolak ez zuen jakin sakeei ondo erantzuten, eta horrez gain, tanto bakar bat egin zuen.

Airez nahiz botzez erantzun zien Barriolak Olaizolaren pilotakadei, eta eramatea lortu zuen pilotakada gehienetan, Olaizola II.ak tantoa gehiago luzatzeko asmorik gabe, hiru t'erditik eta lautik

gantxo gurutzatuak eginez amaitu zituen tanto asko.

Hurrengo jardunaldian finalerdian izango dira jada, eta Olaizola II.ak Urrutikoetxea izango da aurkari; aipatzekoa da, goizueta-rrak atzeratu egin duela partidak.

Oinatz Bengoetxea leitzarrek, berriz, pasa den asteburuan Jaunarenari irabazita, Juan Martinez Irujoren aurka ariko da, eta koska hori gaititu beharko du, ekainaren 16rako aurreikusitako final handian jokatu ahal izateko.

Tolosa ongi, herriartekoetan

Herriarteko txapelketak aurrera doaz, bai eskuz eta baita zesta puntan ere; Tolosak irabazi egin du azken jardunaldian, bietan.

Eskuz, Amezketak atzetik jarri da Hernaniren aurkako neurketan, partida bat irabaziz eta beste bat galduz. Kadeteak 21-22 galdutako jubeniletan 22-5 irabazi, eta nagusietan 5-22. Zizurkilek, bere aldetik, Bergararen aurka abantaila hartu du, 2-1 irabaziz joanekoan. Hala, kadeteetan 22-8 irabazi zuten, jubeniletan 22-2 irabazi, eta nagusietan 7-22 galdutako.

Tolosaldeko taldeek jokatu dituzten beste bi neurketetan, eskualdeko taldeek elkarren aurka jokatu dute. Tolosak aurre hartu dio Berrobiri norgehiagokan, 2-1eko emaitzarekin. Kadeteetan tolosarrek 22-11 irabazi zuten, ju-

beniletan 22-9 ere irabazi, eta nagusietan 7-22 galdutako. Berrobik zaila izango du bere etxean neurketari buelta ematea.

Eskualdeko taldeen arteko beste neurketan Bidegoian aurreratu da 1-2ko emaitzarekin Alegiari. Kadeteetan 7-22 irabazi zuen Bidegoianek, jubeniletan 9-22 irabazi zuen ere, eta nagusietan 22-7 irabazi zuten alegiarrek.

Herriarteko zesta puntari dagokionez, Tolosak irabazi egin zuen Karmelo Baldako jardunaldia, oso partida estuekin, Donostiaren aurka. Zumaia izango du hurrengo aurkaria, datorren astean.

Ogi Berri Txapelketa

Tolosako Beotibar frontoian Migel Soroaren oroimenezko I. Ogi Berri Pilota Txapelketaren beste jardunaldi bat jokatu da asteburuan. Final-laurdenetan lehiatu dira pilotariak eta partida gogorak ikusteko aukera izan dute pilotazaleek.

Kadete mailan Errandonea-Mendia bikoteak 22-10 irabazi dio Egiguren-Erauskin bikoteari. Etorkizunekoetan, Iribarria-Erauskin bikotea izan da garaile, 22-15 irabaziz Larrañaga-Aburuza bikoari. Elite mailan izan da jardunaldiko markagailu estuena, Artola-Peñas bikoteak 22-20 irabazi baitio Victorrek eta Rezustak osatutakoari.

Irudia Tolosa**NESKA TOLOSARRAK BIKAIN FUTBOLEAN**

Areto futboleko bikain aritu dira denboraldi honetan, neska tolosarrak. Horrela, Hirukide ikastetxe-ko alebin neskek Gipuzkoako txapelkunore geratu dira, finala Azpeitiko Karmelo Etxegararen aurka 2-1 galduta. Naroa Garaialde, Nora Sanz,

Ane Eizagirre, Maria Herrero, Claudia Herrero, Maialen Conde, Andrea Vilchez, Leire Garmendia eta Irene Jauregi izan dira taldeko jokalariek, eta Eli Garmendia, Itxaso Leon eta Miren Berasategi, entrenatzaileak. HITZA

Final Four-a irabazi, eta mailaz igotzea lortu du TAKE Orbelak

Hurrengo denboraldian taldea mantenduko dutela diote; EAEko ligara igotzea lortu dute tolosarrek

Itzea Urkizu Tolosa

TAKEk 25. urteurrena ospatzeko erabaki zuen Gipuzkoako erregional lehen mailako Final Four fasea Tolosan egitea. Hala gertatu da, bai, eta TAKE Orbela saskibaloitza taldeak fasea jokatu du, maila igoera eskuratuz gainera.

TAKEko bigarren taldea da TAKE Orbela, eta duela hiruzpau

lau denboraldi sortu zuten, maila baxuagoetatik lehen taldera pasatzeko trantsizio hori betetzeko asmoz. Jauzi handia egin du taldeak, eta autonomia erkidegoko mailara iristea lortu dute horrela.

Final Four-a lau talderen artean jokatu zuten, eta Alde Zaharra talde donostiarren aurka jokatu zuten tolosarrek, 72-50 gailenduz. Aurreko norgehiagoka Errotandi azpeitiarren irabazi zuten, 40-47; azpeitiarren aurka irabazi zuten, beraz, TAKE Orbelak, 60-63ko emaitzarekin.

TAKEko kideek azaldu duteenez, maila igoera, besteak beste, entrenatzeko moduan nabaritu dute: «Entrenamendu gogor-

xeagoak egin beharko dira, maila horretako partidua eta jokora egokitzeko. Honez gain, norgehiagoketara joan-etorriak ere orain arretokoak baino luzeagoak izango dira».

Gainerakoan, TAKE Orbelako jokalariek hurrengo denboraldian ere jarraituko dutela azaldu dute taldekideek, eta beraz, ez da aldaketa nabarmenik izango jokalariei dagokienez.

Orain, denboraldia amaituta, Tolosako Adiskideak Kirol Elkar-atea taldearen 25. urteurrena ospatzeko jardueretan murgilduko dira entrenatzaile nahiz jokalar-riak, bete-betean.

● tolosa@hitza.info

Lakunza eta Karakus Europara begira jarri dira

Hegats igeriketako Roberto Jauregiren omenezkoan Espainiako junior aurreselektzioan sartu dira

Itzea Urkizu

Pasa den larunbatean jokatu zituzten, Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan, Roberto Jauregiren omenezko XI. Txapelketako saioak. Besteak beste, ekainean izango den Espainiako txapelketarako azken prestakuntza gisa baliatu zuten lehia igerilariak, eta Tolosako Igarondo Urpekoak taldeko Irati Lakunza eta Aras Karakusek, Europako txapelketan parte hartzeko aukera izango dute, larunbateko denborekin Espainiako junior taldeko aurreselektzioan sartu baitziren.

Guztira, 110 igerilarik parte hartu zuten, Euskal Herititik

nahiz Herrialde Katalanetatik; infantil eta kadete mailakoak ziren guztiak. Igarondo Urpekoak taldeko parte hartzaileak Gipuzkoako selektzioarekin aritu ziren: Harriet Alargunso, Iker Alargunso, Irati Eizagirre, Maddi Goenaga eta Intza Egizabal. Aipatzekoa da, azken honek bosgarren postua eskuratu zuela lurazaleko 100 metroko proban.

Europara begira

Larunbateko lehia, gainera, Espainiako junior taldea osatzeko aurreselektzioa ere izan zen, eta denboren neurketak burutu zituzten horretarako.

Igarondo Urpekoak taldetik, Aras Karakus eta Irati Lakunza sartu ziren taldean, eta Polonian jokatuko dituzten Europako Txapelketarako postu baten lehian sartu dira modu horretara. Lakunzak, honez gain, 200 metro lurazaleko errekorra egin zuen, Espainiako junior mailan.

Urrezko Aizkolarien finalean izango da Joseba Otaegi

Ugaitz Mugertza mendean hartzeko saio gogorra egin behar izan zuen aizkolaria zizurkildarrak

Erredakzioa

Joseba Otaegik lortu du Urrezko Aizkolarien finalerako sailkatzea; Rekondo, Nazabal eta Atutxa izango ditu aurkari, igandean, Azpeitiako finalean.

Otaegi zizurkildarrak, 18 minutu eta 47segundoko denbora egin zuen, eta Mugertzak, berriz, 19 minutu eta 5 segundokoa. Lana gogor egin behar izan zuen, beraz, Otaegik, aizkolaria gaztea mendean hartzeko.

Egin beharreko lanak honakoa izan ziren: 45 ontzako enborra ahalik eta kolpe gutxienekin mozte; tamaina bereko egurra ahalik eta azkarren ebakitzea; 45 ontzako enborra zutik ebakitzea; 60

ontzako enborra mozte, eta azkenik, iraupen proban, bi kana erdi eta bi 60 ontzako mozte.

Lehen proban aurrea hartu zuen Otaegik, eta bigarrenean mutrikuarrak berdintzea lortu zuen. Hirugarren eta laugarren probetan, berriz, Mugertza II. a hobeto aritu zen. Zizurkildarrak lan erdietatik aurrera eman zion buelta probari. 60 ontzakoarekin, hamar segundo kendu zizkion Mugertzari, 5:57ko denborarekin, eta zutikakoa eta etzandako proban ere, mendean hartu zuen Otaegik, aizkolaria gaztea.

Azkenik, iraupen proba izan zen saioa erabaki zuena, izan ere, bederatzi segundoko aldea lortu zuen Joseba Otaegik, Mugertzarekin; 10:09 izan zen Otaegiren denbora, eta Mugertza II.arena, berriz, 10:18 izan zen.

Gabirondo sasoi betean segan

Joxe Gabirondo segalari gazte-luarrak erakutsi du, beste behin, segan iaioa dela.

Euskal Herriko Liga jokatu dute asteburuan, nazioarteko eran, eta bera izan da irabazlea. Baldintza nahiko gogorretan jokatu zuten proba, hotz egiten baitzuten, eta belarra ere ebakitzeko zaila zegoela azaldu zuten.

Emakumezkoetan, berriz, Alatzne Etxaburu zizurkildarrak hirugarren postuarekin konformatu behar izan du. Euskal Herriko ligak hiru jardunaldi izango ditu, eta saio hauetan erabakiko da Europako Txapelketara zein joango den.

Azkenik, aipatzekoa da, Gipuzkoako sega txapelketako saioa izango dela igande honetan, ekainak 2, Zizurkilgo Areta baserriaren inguruan.

11:30ean izango da lehenengo saioa, eta Igor Esnaola, Jexux Goenaga, Juan Joxe Lizaso eta Jexuxmari Ormaetxea *Urki* ariko dira. 12:30eko saioan, berriz, Mikel Garaialde, Mikel Alkorta, Julen Gabirondo eta Iban Pardo lehiatuko dira.

Irudia ◊ Ibarra



GIMNASTIKA IBARRAN

Gimnastika erritmikoko lehiak izan ziren, larunbatean, Ibarra. Be-labietako kiroldegian ospatu zituzten, batetik, Udaberriko txapelketaren bigarren alebin eta infantil fasea, eta bestetik, Gipuzkoako amateur federatuen taldeko txapelketa. ENERITZ MAIZ

◉ **Hilberriak eta urteurrenak**

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**JOSE ANTONIO
IZAGIRRE
IRASTORZA**

- Goian bego -



NORA ZOAK ATTONA TXAPELIK GABE ?

Zure bilobak:
Ekaitz, Maialen, Manex, Edurne, Maddi, Ane, Miren.

TOLOSA,
maiatzaren 28an



14°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Danzari Txiki egunean jendez bete zen, Anoeta. HITZA



Anoetan bizi diren kultura ezberdinen erakusketa izan zen, plazan. HITZA

Festarik festa ibiltzeko egunak

Anoetan festak hasi aurretik Kuadrilla eta Danzari Txiki egunak izan dituzte; Txaraman jaia ospatu dituzte

Eneritz Maiz Anoeta / Txarama

Bihar jaurtiko dute Anoetako festei hasiera emango dien suziria. Hala ere, festa izan dute asteburuan. Kuadrillen Eguna izan zuten larunbatean goizetik hasi eta ordu txikiak bitartean. Igandean, berriz, Danzari Txiki Eguna izan zuten, eta dantzaz gain, Kulturartekotasunaren erakusketa izan zuten. Lehen aldiz, Anoetan bizi diren kultura desberdinak erakusgai izan ziren: Ekuador, Nikaragua, Kolonia, Sahara, Maroko, Nigeria eta Euskal Herria.

Txaraman bi egunez nagusitu da jaia. Adin guztiei zuzendutako ekitaldiak izan dituzte. Barrikotea, arku tiroa, toka txapelketa, pintxo dastatzea, herriko dantzarien emanaldia edota herri afaria.



Kuadrillen arteko jolasak egin zituzten bazkariaren ostean, herriko plazan. A. IMAZ



Txikiak aulki jokoan ibili ziren, Txaraman. A. IMAZ

Agenda

GAUR

DEIALDIK

- **Lizartza.** Kultur Astearen barruan, landare buruzko hitzaldia emango du Jakoba Errekondok, 19:00etan.
- **Leitza.** Kultur Aroaren barruan, 20:00etan, II. Mendia, Kirola eta Abentura zinemaldia, Peritzan.
- **Berastegi / Ikaztegieta / Tolosa.** Tolosaldeko Mankomunitatearen Birziklapen Bira Berastegin, Ikaztegieta eta Tolosan izango da. Berastegin arratsaldean egongo da. 19:00etan, Ikaztegieta eta 19:00etan eta 20:00etan, Tolosan hitzaldi tailerrak izango dira.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

GAURKO ESKAINTZA

Mauka berria

Egunerokotasunetik ateratzeko plan ezin hobea Larraulen!

LARRAULGO HERRI OSTATUA
San Esteban z/g
Larraul 20159 (GIPIZKOA)
Tel.: 943-69 18 55

www.mauka.eu

Prezioa

24€



Motxilak salgai 15 eurotan
Koloreak: Berdea eta beltza

Eskuratzeko deitu
943-655 695
telefono zenbakira
edo pasa HITZAKo egoitzatik.
(Araba etorb. 5 behea · Tolosa)